


⇒ Hizpide ⇒

Mexikon aniztasunari ematen zaion arreta irakurleak trebatzeko garaian

ELISA BONILLA RIUS*

Miramar Jauregia, Donostia, 2008ko uztaila.

Naroa Zubillagak itzulita



Mila esker, ohore eta plazer handia da niretzat gaur hemen izatea, Haur eta Gazte Literaturako IV. Iberiar Biltzarrean; eta, batez ere, Donostian izatea, horrenbeste lagunen artean, eta horrenbeste aurpegi berriren artean –espero dut horietatik lagun berriak egitea–. Bereziki eskertu nahi diet Itziar Zubizarretari, Mari Jose Olaziregiri, Reina Duarteri, Patsy Aldanari eta IBBY erakundeari –nazioartekoari nahiz bertakoari–, irakurleak modu honetan trebatzen eta kalitatezko haur eta gazte literatura zabaltzen jarraitzeagatik. Helburu bera baitugu guztiok, eta guztiok gaude helburu horren alde ahalegin guztiak egiteko prest. Horrek, elkarren arteko desberdintasunak desberdintasun, anaitu egiten gaitu. Horregatik diot ohore eta plazerra dela gaur hemen izatea.

* Hitzaldiaren transkripzio estenografikoa. Rosalía Ruiz eta Alberto San Antonioren laguntzaz.

1. *El Machete* egunkaria da, garai hatan, Mexikoko Alderdi Komunistaren agerkaria.

Nire gaurko hitzaldia haur literatura zabaltzeari eta irakurleak trebatzeari buruzkoa da, baina betiere kulturantzaz dago. Testu hau idazteko, oinarri izan ditut Hezkuntzako Idazkaritza Publikoan funtzionari jardun naizen hamalau urteak eta Irakurketarako Programa Nazionalaren koordinatzaile jardun naizen 6 urteak.

Hitzaldiari jarri diodan izenburua da «Mexikon aniztasunari ematen zaion arreta irakurleak trebatzeko garaian», eta, hain zuzen ere, idazten ari den neskato baten irudi honekin hastea erabaki dut, askotan, irakurleak trebatzeaz hitz egiten denean, idazketa kanpoan uzten delako. Irakurlearen trebakuntza zentzu zabalago batean ulertu behar dela uste dut nik, Delia Lerner –emakume argentinarrorik– dioen moduan, «kultur idatziaren erabiltzaile osoak» prestatu behar dira. Esaldi horrek batzen ditu, sakon-sakonean, hizkuntzaren gizarte-funtzio guztiak eta pertsonen komunikaziorako gaitasunak.

Hitzaldi hau idazteko lau gidalerro edo helburu nagusi ezarri dizkiot neure buruari:

Lehenik eta behin, Mexikoko testuinguru demografiko eta kulturala azalduko dut. Gaur esango dudana guztiak errealitate horiei egingo baitie erreferentzia eta, beraz, egoera zein den azaldu beharra dago.

Gero, aniztasunari eta, bereziki, kulturantzaz buruz egindako aipamen batzuk ekarriko ditut, aniztasunaren gai korapilatsua laburtzen dutela iruditzen baitzait; hala, kontzeptuaren inguruko erreferentzia berak edukiko ditugu, kontatu nahi dizuedanaren testuinguru izan dadin.

Bi puntu horien ostean, hirugarrenean sartuko naiz, politika publikoen gaia aztertzeko. Bi politika publikori buruz hitz egingo dut batez ere: lehenik, aurreko administrazio federalak ikastetxeetako eta ikasgeletako liburutegietan egindako lanari buruz –gaur egun ere abian den politika da eta, hasieran esan dudana moduan, nik neuk koordinatu nuen 2001 eta 2007 artean; bigarrenari buruz defizit kutsuaz hitz egin beharko dut, oraindik egiteko dagoenari buruz hitz egin behar baitut, besteak beste, arreta izugarria behar duen baina nahikorik jasotzen ari ez den talde bati buruz: migratzaileak diren nekazari jornalariak.

Azkenik, aipatutako politiken eragina balioesteko egindako azterketetako datuak aipatuko ditut.

I. Mexikoko gizarte-testuingurua eta testuinguru demografikoa

Beraz, hasteko, Mexikoko gizarte-testuinguruari eta testuinguru demografikoari buruz hitz egingo dizuet. Atal honetarako Mexikoko iraultza garaiko argazki bat aukeratu dut, XX. mendeko lehen hamarkadetakoa. Irudian sonbrerodun hainbat gizon ageri da, baina guztien artean bat bakarrik ari da egunkaria irakurtzen,¹ gainerakoak entzuten baitaizka.






Irudiak agerian uzten du hizkuntza idatzia menderatzeko beharrezana aldatu egin dela. XX. mendearen hasieran aski zen bakar batek gainerako guztientzat irakurtzen bazuen. Gaur egun, hori ez da horrela. Pertsona guztiek izan behar dute kultura idatzirako sarbide osoa, beren hiritartasuna erabat baliatu ahal izateko.


Mexiko: gizarte-desberdintasun handiak

Mexikok gutxi gorabehera bi milioi kilometro koadro dauzka. Lurralde zabala da, beraz. Ehun milioi biztanletik gora bizi da bertan eta horietatik sei milioik bost urte baino gehiago dauzka eta hizkuntza indigenaren bat hitz egiten du. Gehienak hirian bizi dira: lautik hiru landa-eremutik kanpo bizi da. Bestalde, Mexiko Errepublikak Federala da, Demokrazia Konstituzional baten arabera antolatua. Derrigorrezko hezkuntza lau urterekin hasten da eta 11 mailetan dago antolatuta: bi ikasturte haur-eskolan, sei lehen hezkuntzan eta hiru bigarren hezkuntzan. Herritarren batez besteko eskolatzeko-maila bigarren hezkuntzako hirugarren ikasturte artekoa da, eta lehen hezkuntzako lehen mailan sartzen direnen batez besteko eskolatzeko-itxaropena hamabi mailatakoa da, hau da, batxilergoa amaitu artekoa.

Hezkuntzan egiten den inbertsioa garrantzitsu samarra da, herrialdeko barne produktu gordinaren % 7, hau da, Estatuak egiten duen inbertsio osoaren % 25. Hala eta guztiz ere, gizarte-desberdintasun ikaragarriak daude oraindik ere. Txirotasun larria eta bazterketa handia dago. Oraindik orain, analfabetatze-tasa handia dugu, % 9,5koa 15 urtetik gorakoen artean; eta hori, barne produktu gordin indartsua duen herrialdea garen arren –Espainiak duen BPGaren parekoa dugu guk ere– eta munduko hamargarren ekonomia garen arren. Postu bat gorago edo baxuago, baina hortxe gaude, bolumen osoa kontuan hartuta, aberastasun gehien ekoizten duten hamar herrialdeen artean. Ordea, *per capita* BPG baxua dugu, Mexikok Espainiak baino askoz biztanle gehiago baitauzka, eta guztira ekoiztutako BPGa biztanle-kopuruarekin zatituz gero, gutxi gorabehera AEBetako 7.000 dolar ateratzen da pertsona bakoitzeko. Horregatik, Mexikoko gizarte-garapenaren indizea ez da BPGaren guztizko bolumenagatik mundu mailan hamargarren tokian dagoen ekonomia bati dagokiona: kasu horretan, 51. postura jaisten da. Gainera, aberastasuna ez dago uniformeki banatuta, eta, ondorioz, gizarte-desberdintasun handiak daude.

Esate baterako, alfabetatze-adierazlea hartuz gero, biztanle-kopuru osoaren % 8,2 baino ez da analfabetoa, baina 20 puntuko aldea ere badago estatu batetik bestera; esate baterako: Mexikoko hiriak dauka mailarik altuena, hau da, biztanle-kopuruaren % 97 baino gehiago dago alfabetatua, baina Chiapas-eko estatuan % 77 baino ez dago alfabetatua. Eta





desberdintasun handiagoak aurkituko genituzke informazioa udalerrien arabera ezberdinduko bagenu. Hain zuzen ere, maila horretan ageri zaigu, adibidez, Coicoyán de las Flores, Oaxaca-ko estatuan dagoen herri bat –Guerrero herritik oso gertu– mendilerroaren tokirik garaienean. Herri horrexek ageri du, 2000. uretan egin zen azken errolda-zentsuaren arabera, bazterketa gehien eta analfabetatze-tasa handiena: % 75 (15 urtetik gorakoentzat). Coicoyán herriak ia-ia 6.000 biztanle dauzka. Biztanleen % 80 indigena da, mixtekoen etniakoa, eta % 67,5 elebakarra da. Senide askotako familiak izaten dituzte, gazte-gaztetatik sortuak, gainera (13 eta 14 urterekin ama bihurtzen diren neskatok). Herritarrak autokontsumorako nekazaritzan jarduten dira ia-ia eskusiboki. Hala eta guztiz ere, herriak duen azpiegitura ez da batere kaskarra, 2000. urteko zentsuaren arabera: 18 haur-eskola, lehen hezkuntzako 3, bigarren hezkuntza telebista bidez emateko programa bat, liburutegi publiko bat, udaletxe bat eta saskibaloian jolasteko kantxa bat.

Herritarrak aztertzeko hurbilketa mota hauek egiten direnean garbi dago estatistika-maila horietan ez direla berez dauden desberdintasun handiak agertzen. Aipatu dudan herriaren adibideak, beraz, agerian utzi digu Mexiko aberastasun handiko herrialdea dela, baina, oraindik ere, zailtasun eta gizarte-desberdintasun handiak dituela.

Hizkuntza-aniztasuna

UNESCOren arabera, munduan 7.000 hizkuntza desberdin erabiltzen dira eta urtero, gutxi gorabehera, 20 desagertzen dira. Aipatu ditugun 7.000 hizkuntza horietatik erdia desagertzeko arriskuan dago, geroz eta hitzun kopuru txikiagoa daukatelako. Hala, Latinoamerikan gaztelania, portugesa eta ingelesa dira nagusi, hitzun gutxiko hizkuntzen kaltetan. Mexikon, esate baterako, 62 indigena-talde daude erregistratuak, bakoitzak bere hizkuntza duela. Guztira sei milioi hitzun dira, biztanle-kopuru osoaren % 6 inguru.

62 hizkuntzez gain, 364 hizkuntza-aldaera daude erregistratuak: izugarritzko desafioa hizkuntza-aniztasuna gordetzearekin zerikusia duen edozein ekintza aurrera eramateko. Hain zuzen ere, 2005ean Hizkuntza Indigenen Institutu Nazionala sortu zen, hizkuntza horiek gorde daitezen bermatzeko.

Hizkuntzen banaketa ez da homoginoa, gehiengoak hegoaldeko estatuetan daude. Hala, Yucatán eta Chiapas estatuetan hizkuntza indigenen hitzunen % 30 baino gehiago biltzen da, eta erdiguneko eta Kalifornia Beheko penintsulan % 2 baino gutxiago dago.

Hizkuntza guztiek ez daukate hitzun-kopuru berbera, lau edo bost dira gehien hitz egiten direnak. Lehenik náhuatl hizkuntza dago, batez ere herrialdearen erdigunean hitz egiten dena. Bigarrenik maya hizkuntza

dago, hiztunak Yucatán penintsulan bilduak baitaude. Mixtekoa batez ere Guerrero eta Oaxaca estatuetan hitz egiten da eta zapoteka Oaxacako erdiguneko aranetan erabiltzen da; gainerako 58 hizkuntzen hiztunak herrialdearen gainerako % 50ean zehar daude zabalduak.

II. Aniztasuna eta kultura idatzia

Aniztasun hitzarekin zer esan nahi dudan azaltzeko, funtsezkoak iruditzen zaizkidan bi ideia azalduko ditut lehenik: *identitatea* eta *bestetasuna* edo bestearekiko kontzientzia hartzea. Azken batean, beste asko badirela pentsatzeak *aniztasunean* pentsatzera garamatza. Hiru nozio horiek (identitateak, bestetasunak eta aniztasunak) beste baten edo beste askoren existentziaren ideia helarazten dute. Izan ere, identitatea eraiki dezakegu, baldin eta beste bat badago. Beste hori aitortuta eta elkarrengandik bereizten gaituena zer den zehaztuta eraikitzen baitugu geure identitatea: besteengandik bereizten garelako baikara gu geu. Era berean, *beste* asko daudenean aniztasunaren ideia sortzen da. Horrenbestez, pertsonen aniztasunaz hitz egin dezakegu, baina baita hizkuntza-, kultura-, politika-, liburu-, irakurketa- eta beste hainbat aniztasun motaz ere.

Honaino iritsita eta, bereziki, identitatearen ideia ulertzeko, Octavio Paz poetaren *Piedra de sol* (1957) liburuko aipu bat erabili nahi nuke. Honela dio: «... ni neu izateko, beste bat izan behar dut, nigandik atera eta besteengan aurkitu behar dut neure burua, besteak ere ez baitira ni ez banaiz, baina beste horiexek osatzen dute, era berean, neure existentzia». Pasarte hori oso adierazgarria iruditzen zait. Besteen arabera baino ezin gaitzke gu geu izan. Jaiotzen den unetik, haurraren lehen erreferentzia, bere existentziaz kontzientzia hartzen lagunduko diona, ama da. Zentzu horretan, aniztasunaz arduratzea identitateaz arduratzea da. Identitatea/aniztasuna harreman horixe da, hain justu, hezkuntzan jorratu nahi duguna.

Beste aipu bat ekarri nahi dizuet orain. Oraingo honetan, berriz ere bestetasunari erreferentzia egiteko, baina ez norbanakoaren ikuspuntutik, baizik eta kulturaren ikuspuntutik. Enrique Luengok idatzitako *La otredad indígena en los discursos sobre la identidad latinoamericana* laneko pasarte hauxe irakurriko dizuet: «Latinoamerika bestetasun bikoitzeko kontinente gisa ikus daiteke; batetik, Europaren eta Ipar Amerikaren ikuspuntutik datorkigun bestetasuna;... bestetik, bestetasun indigenaren presentzia». Txanponaren bi aldeak dira. Batetik, kanpoko begirada: nola ikusten gaituzte besteek? europarrek –deskubritu gintuztenetik– nahiz estatubatuarrek. Ameriketako Estatu Batuek inork baino pisu handiagoa baitu Latinoamerikan. Atzealdea, *backyard* delakoa bagina bezala ikusten gaituzte, atzeko patioa, behean gelditzen dena,... hor bada bestetasun zentzumen bat, eta bestetasun horrek gure identitatea markatzen du.



2. Latinoamerikako argitalpenen ekoizpen osoa AEBetako baina askoz baxuagoa da. Latinoamerika osoan eta CERLALC erakundeak emandako datuen arabera, 2001 eta 2005 bitartean 363.146 liburu argitaratu ziren, Ameriketako Estatu Batuetan argitaratzen denaren bosten bat bakarrik. Liburu horietatik gehiengoak gaztelaniaz argitaratzen dira (% 58,1), gaztelania baita Latinoamerikan gehien hitz egiten den hizkuntza, 271.928.700 hitzunt dauzka, eta ondoren portugesa dago, 163.153.389 hitzunekin. Portugesez % 38,7 argitaratzen da eta gainerako hizkuntzetan, berriz, kopuru oso txikia, % 3,2, talde horretan sartzen dira, besteak beste, ingelesez, italiaraz, alemanez, frantsesez eta jatorrizko hizkuntzetan idatzitako liburuak. Datu horiek ISBN CERLALC- BASE Agentzia Nazionaletik hartu ziren 2006ko maiatzean.

Bestetik, barneko begirada daukagu, nola ikusten dugu guk geure burua? Gu ez baikara homogeenak. «Beste bestetasuna», Latinoamerikako nazio bakoitzean bizi duguna, indigenarena da. Ikuspegi bikoitza daukagu, orduan: kanpotik nola ikusten gaituzten eta nola ikusten garen gu geu; nola ikusten diogun elkarri. Barneko ikuspegi horrek ezezagutza sortzen du eta, ondorioz, *bazterketa*. *Beste* indigena *beste* baztertua da.

Kanpoko begiradarekin jarraitzearen, beste aipamen bat irakurriko dizuete, *El País* egunkarian agertutakoa, aurtengo ekainaren 14an. Salman Rushdie-k esana da, eta iparraldeko inperioaren eta Mexikoren artean dagoen 3.000 kilometroko mugari egiten dio erreferentzia: «Amerikako Estatu Batuek inoiz baina gehiago entzun behar dituzte beren mugaz haraindiko ahotsak. Idazleak ezinbesteko bitartekariak dira nazioarteko elkarrizketa horretan, hizkuntza bakoitzaren ondare bakar eta artistikoren zaindaria. Ezin liteke elkarrizketa hori soilik ingelesez egitea».

Elkarrizketa hori ezin litekeela soilik ingelesez egin esaterakoan ingelesez ekoizten diren liburu-kopurua datorrit burura, eta hizkuntza horrek gainerako hizkuntza guztiei jartzen dien arreta txikira. Ingelesaren hegemoniak honako datu hauek erakusten baititu: 2004an (lau urtetan egoera gehiegi aldatu ez delarik) 375.000 liburu berri argitaratu ziren ingeles hizkuntzadun herrialdeetan, hau da, munduko ekoizpenaren % 40; kopuru horretatik % 52 Ameriketako Estatu Batuetan argitaratu zen. Mundu osoan ingelesez ekoizten diren liburuak gehituta, 2004an guztira 450.000 liburu argitaratu ziren hizkuntza horretan. Amerikako Estatu Batuetan (2004an) 14.440 itzulpen baina ez ziren argitaratu, urtean argitaratzen duen liburu-kopuru osoaren % 3 baino ez.

Ordea, Brasil, Kolonia, Espainia eta Mexikon ingelesetik itzulitako 13.592 liburu argitaratu ziren 2004an, AEBetan baina zerbait gutxiago, baina argitalpen-kopuru osoaren zati handi bat, edonola ere:² urte hartan (2004an) herrialde horietan argitaratutako liburu guztien % 16,4, eta argitaratutako itzulpenen % 52. Ondorioz, gaztelaniaz hitz egiten den herrialdeetan badugu ingelesez argitaratzen denarekiko interes handia eta, horregatik, itzulpenen erdia baino gehiago ingelesetik egindakoak dira.

Datu horiek guztiek emanda, Rushdie-ren aipua gogoratuko dut berriz ere, kulturen arteko begiradak ez baitira, inolaz ere, maila berekoak. Herri batzuek gehiago begiratzen diegu beste batzuei (zer dioten, zer pentsatzen duten, zer argitaratzen duten... interesatzen zaigu). Laburtuz, batzuek ezagutu nahi dute eta beste batzuek ez dute ezer ezagutzen. Egoera hau ezinbestean hartu behar dugu kontuan, nik uste, eta zeresan handia du elkarrizketak eraikitzeari dagokionez, bai eta aniztasuna balioesteko garaian sortzen den tentsioari dagokionez ere.

Ikus ditzagun orain Latinoamerikan hizkuntza indigenatan argitara-



tzen diren liburu-kopuruari buruzko datuak. Urte-bitarte berean, hau da, 2001 eta 2005 bitartean Latinoamerikan 362.146 izenburu argitaratu ziren, eta horietatik % 3,2 baino ez daude gaztelania edo portugesa ez diren beste hizkuntza batean. Horietatik, gainera, 243 baino ez zeuden hizkuntza indigenan idatziak, hau da, % 0,7. Beheko taulan ageri den moduan, datu horiek ez daude, inondik inora ere, hizkuntza horietako hitun-kopuruaren proportzio berean. Datuok erakusten digute, era berean, Latinoamerikan zein gutxi begiratzen dugun geure jatorrizko kulturaren barrena.



Latinoamerikan hizkuntza indigenatan argitaratutako liburuak

Hizkuntza-familiak	Izenburuak	Ehunekoak	Hiztun-kopurua (milioiak)
Maya hizkuntza	87	35,8	16,251
Bakandutako hizkuntza	34	14,0	--
Kitxua	28	11,5	8,037
Jaki (Aimara)	27	11,1	2,227
Sailkatu gabeak	20	8,2	--
Tupi-Guaraniera	19	7,8	4,688
Chibchatar hizkuntza	16	6,6	
Guahibera	4	1,6	
Pemonera	2	0,8	
Arawakera	2	0,8	
Salibera	2	0,8	
Arawakanera	1	0,4	
Mapuxera	1	0,4	
Guztira	243	100	

Askotan baliatzen den argudioa da –eta ez da txorakeria– hizkuntza indigenak ahozko hizkuntzak direla funtsean. Náhuatl eta Maya hizkuntza bezalako salbuespenak salbuespen, horiek oso antzinako erregistroak baitauzkate, gainerakoak ez dira inoiz kasik idatzi ere egin. Nolanahi ere, argitaratutako liburuen arteko aldea oso handia da eta argi ikusten da jatorrizko hizkuntzek gure herrialdeetan lekukotza oso txikia daukatela.

Jarraian azalduko dut nola saiatu garen Irakurketako Programa Nazionalaren bitartez Mexikoko jatorrizko herri eta hizkuntza batzuei protagonismoa ematen.



III. Irakurketako Politika Publikoen aniztasuna

Orain arte Mexikoko gizarteaz eta testuinguru demografikoaz hitz egin dut, aniztasunaren ideiaz –identitatearen eta besteekiko harremanaren arabera ulertua–, bai eta identitate hori modu jakin batean adierazteari buruz ere, alegia, liburuen argitalpenkopuruari buruz. Zuekin testuinguru orokor horretan kokatu ostean, bi alderdi jakinetara bideratu nahi dut gaia. Lehenik, eta denbora gehien honekin emango dut, nik neuk hainbat urtetan burutu behar izan nuen jardunaz hitz egingo dut, Mexikoko eskola publikoetako derrigorrezko hezkuntza izen emandako haur eta gazte guztiei eragiten diena: Irakurketako Programa Nazionalaz ari naiz, gaur egun ere martxan dagoena. Bigarrenik, estatistikan galdu egiten diren haurrez hitz egingo dut. «Ikusi ere egiten ez diren» beste horiek, hezkuntza-politikatan apenas sartzen hasi direnak. Arrisku handian dauden haurrez ari naiz eta, zehazki, nekazaritzako haur jornalarietz.

Mexikoko Irakurketako Programa Nazionala

Irakurketako Programa Nazionala programa federal bat da, horrek esan nahi du herrialdeko 32 estatutan dagoela martxan, estatu bakoitzeko koordinazioak gidatuta. Abian 2002ko martxoan jarri bazen ere, 2001ean sortu zen, 2001-2006ko Hezkuntzako Programa Nazionalan nahiz aurretik egondako irakurketa bultzatzeko programetan oinarrituta. Programaren helburua da, eskola publikoei laguntzea irakurleak eta idazleak trebatu ditzaten; hori lortzeko, lau lerro estrategikoren inguruan burutu ziren ekintzak. Lehenak, curriculumak sendotu eta irakaskuntzaren praktika hobetzen zuen; bigarrenak –eta gaurko hitzaldia bigarren lerro honetara bideratuko dut– ikastetxeetako eta ikasgeletako ondareak aberastea zuen helburu; hirugarrenak, giza errekurtsoei emandako prestakuntzarekin zuen zerikusia, besteak beste, irakasle, liburuazain, zuzendari, estatuetako talde tekniko eta aholkulari tekniko pedagogikoei emandako prestakuntzarekin –gaur gai honetan sakonduko ez badut ere, aipatzea interesatzen baitzait– eta, azkenik, laugarren lerro estrategikoa irakurketari buruzko informazioa sortzera eta zabaltzera zegoen bideratuta.³

Beraz, bigarren lerro estrategikoari eutsiko diogu, ikastetxeetako liburutegiak sendotzearekin zerikusia duen horri. Irakurketako Programa Nazionalak hainbat eskola publikotan askotariko liburuak egon zitezen bermatu zuen, ordura arte gehienetan testu-liburuak baino ez baitzeuden. Mexikon testu-liburuak ikastetxeetara eramateko tradizioa dugu aspalditik. Izan ere, 1959an Doako Testu-liburuaren Batzorde Nazionala (Conaliteg) sortu zen, eta batzorde horrek bermatu zuen haur guztiek –bizitokia edozein zutela ere, eta beren baldintza ekonomiko eta sozialak

edozein zirela ere— doako testu-liburuak eduki zitzaten lehen hezkuntzako lehen mailatik hasita; liburu horiek beren jabetzakoak ziren eta etxera eramane zitzaketen. Beraz, doako testu-liburuak 1959an hasi ziren banatzen eta bost hamarkadatan eutsi zaio ohitura horri. Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera politika hori haur-eskolara eta bigarren hezkuntzara ere zabaldu zen, orduantxe hartu baitzuten bi maila horiek derrigorrezko hezkuntzako maila. IPNaren koordinazioa neure gain hartu nuen hartan ikastetxe askok ez zeukaten, artean, liburutegirik eta ikasgeletan ez zeuzkaten testu-liburuak ez ziren bestelako liburutegirik. Horregatik, gure helburua zen, testu-liburua soilik jardun pedagogikorako erabili behar zelako ideia helaraztea, eta bestelako liburuak sartzea klasean egiten diren lanetarako (denbora-pasarako irakurketa gisa nahiz ikaskuntza-prozesuari lagungarri egingo zaion irakurketa gisa), azken xedea baitzen, hasieran esan dudan moduan, kultur idatziaren erabiltzaile osoak trebatzea.

Horrela, gaur egun Mexikoko eskola publikoetako ikasgela guztietan—guztira 850.000, haur-eskola, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza kontuan hartuta— gutxi gorabehera ehun izenburuko bilduma bat dago. Eta ikastetxe guztiek daukate bilduma txiki bat, beren eskolako liburutegia osatze aldera emandako urrats gisa.⁴ Egindako ahaleginagatik ere, Mexiko IFLA eta UNESCOk jarritako estandarretatik behera dago. Erakunde horiek ezarritako parametroen arabera, ikastetxe bakoitzak batez beste hamar liburu izan behar ditu ikasle bakoitzeko eta Mexikon batez bestekoa ikasleko 8 liburutan dago.⁵

Hemen aztertu nahi dudan galdera honako hau da, zein liburu erosi ziren? Eta zergatik? Honelako hitzaldi batean erositakoaren inguruko istorioa berreraikitzea ariketa konplexu samarra baldin bada ere, liburu horiek erosteko jarraitu genituen oinarritzko irizpideetako batzuk azpimarratu nahi nituzke.⁶

IPNaren helburuetako bat askotariko testuak edo testu *anitzak* ematea zenez, Testu kanonikoen ideiarekin hautsi nahi genuen, ez genituen mundu guztiak irakurri behar dituen horiek eduki nahi. Mexikoko hezkuntzan urte askotan egon ziren indarrean kanonaren aldeko ideiak, eta ez zen irakurlerik trebatzea lortu, gutxienez, ez espero zen proportzioan. Gainera, kanonari jarraituz gero, liburretatik abiatuta hartzen dira hautaketa-irizpideak, eta ez irakurleengandik abiatuta.

IPNan irakurleen interesetan oinarritu ginen, eta ez liburuaren ezaugarrietan. Hau da, irakurleek zeuzkaten beharrezanetatik eraiki genituen irizpideak, arreta handiago jarri genuen irakurleengan literaturak ezarritako arauetan baino. Horrexegatik nahi genuen askotariko

3. Azken lerro horren inguruan kokatu behar dugu Oinarritzko Hezkuntzako Ikastetxeetan egin zen Irakurzaletasunari buruzko Galdeketa Nazionala, INEGI eta SEP erakundeek egindakoa, bestelako ikerketekin batera irakurketari eta idazketari buruzko informazioa ekarri baitzuten.

4. Sei urtetan 200 milioi dolar inguruko inbertsioa egin zen eta 200 milioi ale baino gehiago banatu ziren.

5. 2006ko datuak, ikasgeletako liburutegiak eta ikastetxeetako liburutegiak kontuan hartuta, baina testu-liburuak kontuan hartu gabe.

6. Honi buruz informazio gehiago izateko, ikus: Reimers, Fernando, (koord. 2006) *Aprender más y mejor. Políticas y oportunidades de aprendizaje en educación básica en México*, Mexiko, FCE.




liburuak eskaini, uste genuelako, ikasle bakoitzak, irakurle bihur zedin, interesgarri zitzaion liburuak aurkitu behar zuela. Zentzu horretan, IPNak aitortu behar du literatur kanonak ez diola irakurleen heterogeneotasunari erantzuten eta, bestetik, uste dugu, pertsona bat irakurle bihur dadin, irakurri nahi duena aukeratzen utzi behar zaiola. «Liburu honek bilduman egon behar du» esan beharrean, nork irakurriko duen pentsatu ere egin gabe, honela pentsatu genuen: zein gai izan litezke irakurleen gustuko? Zein testuinguruk erakar dakieke, ezaguna nahiz ezezaguna zaielako?... eta horiek bezalako galderak erantzunez irakurleen interesetara egokitzen ziren izenburuak bilatzen hasi ginen.

Aniztasunean aukeratu ahal izatearen eztabaida horren atzean identitatearen gaia dago, hau da, irakurleak liburuan bere burua aurkitu ahal izatea baina, aldi berean, besteak ezagutu eta errespetatzeko aukera izatea. Ondorioz, baloreei dagokienez, testu-hautaketa egiteko kontuan hartu behar ziren, besteak beste, identitatea sendotzen zuten testuak, tolerantzia eta ezagutza bultzatzen zituztenak eta gainerakoekiko errespetua zabaltzen zutenak. Horregatik, garrantzi berezia eman zitzaion «nork bere hizkuntza eta nork bere kultura ezagutzea, nork bere mundua ezagutzeko» baina baita «besteen kultura eta hizkuntza ezagutzea, beren munduetan sartzeko»; biak ere ezinbestekoak ziren programaren helburuak erdiesteko.

Ondorioztatu genuen hurrek *ispiluak* behar dituztela beren burua ikusteko, baina baita *leihoak* ere, gainerakoak ezagutzeko. Metafora horretan oinarritu ziren, hain zuzen ere, erabakietako asko, eta lanari ekin genion, batzuentzat ispilu eta besteentzat leiho diren liburuak topatu nahi genituelako. Jakina, liburu bat, berez, ez da ez bata ez bestea, norberak egiten duen irakurketaren (edo, are, berrirakurketaren) arabera da hori. Kontzeptu malguak dira, horien arabera liburuak ez dira automatikoki sailkatzen, beraz, ikastetxeetako eta ikasgeletako liburutegiak osatzeko zereginean prestatu ziren pertsona guztiekin egin genuen lan.

Testuak hautatzeko prozesuan lan egin zuten pertsonak ez zituzten soilik beren gustuko lanak hautatu, baizik eta betiere liburuak zuzenduak zeuden irakurle guztietan pentsatuta. Zentzu horretan, aniztasuna modu desberdin askotan ulertu zen: hizkuntza-aniztasuna, jatorri-aniztasuna, genero-aniztasuna, formatu-aniztasuna, estetika-aniztasuna eta hautaketa egiteko ikuspuntuen aniztasuna; jakina, baita gai-aniztasuna eta egile-aniztasuna ere, eta beste hainbat eta hainbat ere, betiere aniztasuna izanik bete beharreko helburua.

Testu elebarrarekin gaztelaniazko liburuak eta ingelesez datzitako beste batzuk hautatu ziren. Ingelesezkoak batez ere



bigarren hezkuntzakoengan pentsatuta hautatu ziren, ingelesa bigarren hizkuntza gisa ikasten ari diren gazteek hizkuntza horretan idatzitako zenbait liburu irakur ahal zituzten. Testu elebidunen artean gaztelaniaz eta Mexikon hitz egiten diren 62 hizkuntza indigenetako batean zeuden liburuak hautatu ziren. Liburu elebidunak erositako guztien ia-ia % 10 izan ziren, horixe baitzen programaren helburua. Ikasgeletan banatu ziren bildumetako 1.065 liburuen artetik 101 liburu elebidun zeuden.

Hizkuntza indigenak entzunaraztea Irakurketako Programa Nazionalaren funtsezko helburua zen. Desafio handia izan zen, Hizkuntza indigenatan argitaratutako liburu falta ikaragarria dagoelako eta argitaraturik dauden gutxi horiek ez zeudelako haur eta gazteei bideratuta.


Argitu behar dugu, dena den, gure helburua ez zela hizkuntza indigena batean idatzitako liburuak hizkuntza horren hiztunei ematea. Beraz, helburua ez zen zapotekoz idatzitako testuak ekoiztea haur zapotekoentzat; hori ere garrantzitsua da, baina beste ekimen batzuen bitartez bideratu da. Ideia alderantzizkoa zen, hain justu: haur guztiei eman nahi zitzaizkien gaztelaniaz eta bestelako hizkuntza batean edo batzuetan idatzitako testuak, berdin zion haur horiek hizkuntza indigenaren bat hitz egiten zuten edo gaztelaniaz hitz egiten zuten, helburua baitzen liburuko hizkuntza indigena jatorrizko komunitatetik kanpora jakitera ematea. Ikasleek geure jatorrizko herrien istorioak irakurtzen has zitezten nahi zen, nahiz eta jatorrizko hizkuntzan irakurri ezin. Testua hizkuntza bietan zeukatenez, kontakizuna uler zezaketen eta, gainera, hizkuntza horiek nola idazten diren ikusi eta gaztelaniarekin konpara zezaketen.

Ekimen honek hizkuntza indigenak hitz egiten dituzten sei milioi hiztun horiek nabarmenarazi nahi zituen eta Mexikoko gainerako herritarren sentikortasuna piztu euren artean, sei milioi horiek txiki-txiki gelditzen baitira gurea bezalako biztanle-kopuru handia duen herrialde batean eta, esan dugun moduan, azkenerako, kanporatu eta baztertu egiten zaie. Hala, IPNak aniztasunaren eta kulturartekotasunaren aldeko apustua egin zuen, ez baitira alde batera uzteko moduko baloreak; alderantziz, Programako erroak ziren.

Testuen jatorriaren aniztasuna

Aniztasuna ez zen soilik kontuan hartu hizkuntza indigenatan idatzitako testuak hautatu zirelako. Beste zentzu askotan ere hartu zen kontuan aniztasuna, nahiz eta gaur ez dudan guztiak aipatzeko denborarik izango. Dena den, horietako baten gainean hitz egin nahiko nuke, zeresan handia izan baitu. Liburuen jatorria da.

Mexikon liburu-dendatan saltzen diren bost liburuetatik gutxi gorabehera bat Mexikon ekoiztutakoa da eta beste lauak inportatutakoak. Espainia da Mexikoren liburu esportatzaile nagusia eta Mexiko da, hain



Herritarren etengabeko lis-karrak direla eta haserreturik, Melti-k, kiliwa herriaren koiole-ilarri jainkoak, gau desagerraraztea erabakitzen du, egunaren argipean borroak leundu daitezten. Hori lortzeko, misio bat aginduko die animalia bati baino gehiagori, baina horietako bat berak ere ez du betetzea lortuko.





fulgencio pimentel



zuzen, Espainian ekoiztutako liburuen inportatzaile nagusia Latinoamerikan. Beraz, Mexikon Espainiako liburu asko sartzen da, beste nazionalitate batzuetakoekin batera, hala nola, Venezuelakoak, Argentinakoak etab.

Latinoamerikako liburu-merkatuarekin konparatuta, Mexikoko argitaletxeek ekoizpen handia ageri dute; merkatuari gagozkiola, ordea, Mexikon ekoiztutako eta Mexikoko merkatuan saldutako liburu kopurua bostetik batekoa da. Irakurketako Programa Nazionalaren bitartez ikastetxe eta ikasgelatara iritsitako liburuek, ordea, ez zuten proportzio hori gorde: liburuen % 48, ia-ia erdia, Mexikon ekoiztutakoa zen. Hori horrela izan bada, ez da izan IPNan Mexikoko liburuei lehentasuna emateko irizpide jakin bat zegoelako, baizik eta, testuak hautatzeko garaian, interesgarriagoak egiten zitzaizkielako arduradunei. Hautaketa amaitu ostean ohartu ginen xehetasun horretaz, beraz, nik uste dut hautespen naturalari dagokion zerbaitegatik gertatu zela. Hala eta guztiz ere, IPNan hautatutako liburuen jatorriaren aniztasuna handia da, liburuen % 52 ez baita Mexikokoa.

Liburuen jatorria	Zenbakia	%
ISBN 968 eta 970 (Mexiko)	290*	48
Bestelako ISBNak	310	52
GUZTIRA	600	100

* Bilduma elebiduneko liburuak ere barne.



Jatorriarekin ez ezik, IPNak genero-aniztasunarekin ere jokatu zuen arretaz. Izan ere, ikasgeletan zeuden liburu gutxi haiek literatur lanak ziren, ez zegoen dibulgazioko libururik, liburu informatzailerik, hiztegirik edo kidekorik eta, IFLA erakundearen gomendioen arabera, izenburuen % 40 literatur lanak izan behar dira eta % 60 informatzaileak. Parametro horietara iristeko ahaleginak egin ditugu, baina ez zen oreka hori lortu. Gaur egun dugun proportzioa da, liburuen % 52 literatur lanak eta % 48 liburu informatzaileak. Egoera hori horrela izateko arrazoia da, literatur liburuen eskaintza liburu informatzaileena baino askoz handiagoa dela. Mexikoko merkatuan gabezia handia dago liburu informatzaileei dagokienez, IPNa gabezia horiek txikitzen saiatu zen, baina ez dira erabat gainditu.

Estetika-aniztasunari dagokionez ere, *Libros del Rincón* bildumako izenburuen artean askotariko proposamenak egon zitezten nahi zen. Formatuari dagokionez, liburu txikiak, handiak, pasta gogorrekoak, estilo zaharrekoak, pop-up estilokoak eta ahal beste tamaina eta ezaugarritakoak hautatu ziren. Hautaketa-irizpide horrek 360º-ko aldaketa eragin zuen Hezkuntzako Idazkaritza Nagusiak ordura arte ikastetxeetan jartzen zi-



tuen liburu motari dagokionez. Askotan Idazkaritzak berak ekoiztutako bildumak izaten baitziren, itxuraz berdintsuak diren liburuak, formatu eta diseinu berekoak. IPNak banatutako *Libros del Rincón*⁷ bildumako liburuak, berriz, klase ertain eta altuko haurrek liburu-dendatan betidanik erosten dituzten liburu motak dira. IPNaren helburua zen, beraz, haur eta gazte guztiek izatea liburu horiek edukitzeko aukera berbera, inolako bereizketarik gabe.

IPNak idazle eta argitaletxeen aniztasuna ere dauka helburu. 2003 eta 2006 bitartean, 150 enpresa edo sozietatek (Mexikon deitzen zaien moduan) eman zuen izena hautespen-prozesuan, eta ia-ia 400 argitaletxe-zigilu desberdinek. Programarekin batera argitaletxe txiki berriak jaio ziren eta merkatuan finkatzea lortu zuten, hain justu, programa honek beren izenburuetako batzuen tirada handiak erosi zituelako. Era berean, lehendik ere baziren argitaletxeek beren merkatuko kokapena sendotzea lortu zuten, beren tamaina edozein zela ere. Argitaletxe moten aniztasuna ere lehentasunetako bat izan baitzen, horrek esan nahi du, IPNak argitaletxe handiei, ertainei eta txikiei erosi ziela, inolako bereizketarik egin gabe. IPNak liburu bakoitzaren kalitatea epaitu baitzuen eta ez liburuak argitaratu zuen enpresa.

Mauricio Volpik esandakoak ekarriko ditut orain hona, haurrentzako liburuak egiteko apustua egin zuen enpresari eta editore gaztea baita bera. *Empresarios* aldizkarian ekainean egin zitzaion elkarrizketa batean honela dio: «Irakurketako Programa Nazionalak herrialdeko merkatuan finkatzen lagundu zion *Nostra Ediciones* enpresari. Liburu bakoitzeko zazpi peso ordaintzen badituzte ere, erosketa handiak egiten dituzte, 100 mila aletakoak. Salmenta mota horiek hazten lagundu ziguten».

7. Bilduma hau IPNa sortu baino urte batzuk lehenago hasi ziren banatzen, baina batez ere lehen hezkuntzako ikastetxeetako liburutegietara zegoen bideratuta.

8. Erosketa egiteko, Doako Testu-liburuen Batzordeak inprimatze kostua eta gehigarriak kalkulatzeko zituen, 2,3ko faktoreaz biderkatuta.

URTEA	ENPRESAK	ZIGILUAK	IZENBURUAK
2003	149	329	13.707
2004	159	401	14.824
2005	149	369	9.924
2006	152	399	10.900

Editore honek arrazoi du, hein batean, Estatuak liburuak erosten dituen prezioa dela eta kekatzen denean. Prezio baxuei esker⁸ liburu gehiago jarri genituen ikastetxe eta ikasgelatan, hortan zalantzarik ez, baina, dena dela, irakurketako politika nazionalak diru gehiago bideratu beharko luke liburuak erostera. Diru gehiago behar da eskoletara iristen den liburu-kopurua handitzeko eta liburuaren prezioari horrenbesteko kalterik ez egiteko. Bestelako ondasunek, ordenagailuek, esate baterako, ez dituzte liburuak jasaten dituzten murrizketak onartzen. Argi eta garbi, diru-kopuruarena hobetu daitekeen programako puntu bat da. Esango dugu, gainera, IPN-rako eman diguten aurrekontua aurreko urteetakoa baino askoz baxuagoa dela (ia % 50).


Hautaketa eta prestakuntza

Azpimarratu nahi dugu, *Libros del Rincón* bildumako liburuak hautatzeko prozesua, askotariko ikuspuntuak azaleratzeko aukera izateaz gain urtero erosiko ziren liburuei buruz, prestakuntza-prozesu bat ere bihurtu zela IPNan lan egiten dugun guztiontzat.

DGME Hezkuntza Materialen Zuzendaritza Nagusiak –nire zuzendaritzapean baitzegoen– ez zuen hautespenerako inolako irizpideen zerrendarik egin eta, ondoren, zerrenda hori lan horretan jardungo zuten pertsonari bidali. Alderantziz, katalogoa (mila izenburu inguru) eta bertan erregistratutako liburuak 32 estatu guztietara bidali genituen ekainan, liburuaren azken hautaketan erabakiak hartuko zituzten erakundeetan interesen eta beharrezko kontsulta egin zedin. Gutxi gorabehera 500 bat pertsona aritu ziren estatu bakoitzean (irakasleak, zuzendariak, kultur kudeatzaileak, liburuazainak, ikasleak eta gurasoak) urtean aste betez *Libros del Rincón* bildumako liburuak hautatzeko irizpideak lantzen. Hau da, urtero guztira 16.000 pertsona bildu ziren, liburuak aztertzen, herriko beharrezko eta interesak identifikatzen eta erosketarako irizpideak zehazten.

Hementxe utziko dut IPNari buruzko hausnarketa. Gain-gainetik azaldu dizuet programa horrekin egin nahi izan zena urte askotan ikastetxeetan liburuak sartzeko, betiere aniztasunean oinarritutako liburuak. Orain, lehendik ere aipatua nizuen beste gaiak hitz egiten hasiko naiz.





Arrisku egoeran diren haurrentzako hezkuntza-politikak.

Nekazaritzako haur jornalari migratzaileei emandako arreta.

Irakurketako politika publikoen inguruko gaia ixteko, oraindik ere hezkuntzako arreta egokirik jaso ez duen talde bat hartuko dut hizpide. Lehen aipatzen nizuen moduan, estatistiketan kanpoan oso erraz gelditzen diren horiek dira. Nekazaritzako haur jornalari migratzaileez ari naiz. Nortzuk dira baina?

Gizon, emakume eta haur langileak dira, beren jaioterritik atera –normalean herrialdearen hegoaldekoak izaten dira, lehen aipatzen nuen Coicoyán de las Flores herria bezalakoetakoak– eta Mexikoko iparraldean eta ipar-mendebaldean kokatutako eskualdeetara joaten dira, batez ere Sinaloa eta Kalifornia Behera, han baitaude nekazaritzako soro industrialak, eta nekazaritzako produktuen uztan lan egiteko joaten dira.

Mexikon 350 mila haur inguruk emigratzen dute urtero beren familiekin, lan eta diru-iturri bila. Gaur egun 350 mila haur jornalari horiek agerian geratu dira, denbora askoan «galduak» egon baitira 106 milioi biztanle dituen herrialdeko estatistiketan. Jornalarien % 20 6 eta 14 urte bitarteko haurrak dira eta ehuneko horretatik SEP erakundeak kalkulatu du % 10 baino gutxiago joaten dela eskolara eta laurden bat ez dela sekula eskolara joan. Ia-ia erdia indigenak dira eta % 42ak desnutrizio mailaren bat dauka. Haur jornalarien % 46ak sei egun egiten ditu lan astean eta 2007an UNICEFek emandako datuen arabera, % 35ak ez du inolako atsedunik hartzen. Mexikoko Senatuan 2008ko apirilean aurkeztu zen akordioaren puntu batean zehazten denez, Tokiko Kongresuei aholkatzen zaie jar ditzatela isunak 14 urte baino gutxiagoko jornalariak kontratatzen dituztenei.

↻ Hizpide ↻

Mexikon debekatua dago haurrek lan egitea; eguneroko errealitatea, ordea, bestelako da. Haur horien gurasoek seme-alaba asko izaten dituzte eta guztiakin batera bidaiatzen dute, haiek ere soroetan lan egin dezaten. Horrela, aniztasun handia biltzen da soroetan, herri eta hizkuntza askotako jendea biltzen delako, eta, beraz, ohitura eta kultura desberdinak azaleratzen dira. Horren aurrean, kontratatzaileek gaztelaniaz hitz egiten ikas dezaten bultzatzen dituzte.

Aipatu behar dugu, haurrak soro horietara iristen direnean Estatuarenak ez diren lurretan daudela, horregatik, edozein politika ezartzea ere oso konplexua gertatzen da. Ahalegin asko egin dira nekazaritzako soroetan ikastetxeak jartzeko, baina hori ez da beti bideragarria izan. Lehenik eta behin, soroetara sartu behar baita ikastetxeak jartzeko, baina, behin hori lortu eta gero, hizkuntza indigenak gordetzeko borroka benetan latza da, guraso askok beren seme-alabek gaztelania ikas dezaten nahi baitute, eurek baino aukera gehiago edukitzeko. Zentzu horretan, familiariek ez dituzte beti begi onez ikusten beren seme-alabei ama-hizkuntzan irakasteko ekimenak.

Haur horien aldeko ekimen gisa, 2006an irakurketa-mintegiak egin ziren lehen aldiz nekazal soroetan haur jornalari migratzaileentzat. Hans Christian Andersen idazle daniarra jaio zela 200. urteurrena ospatzeko, haren izen bera duen Fundazioak *Irakurketa Bultzatzeko Mintegia* antolatua zuen, 2006ko abuztuaren 10etik 12ra, Durangoko nekazal soro batean. Mintegian Durango eta Sonora-ko hogeita hamar irakaslek hartu zuten parte, jornalari migratzaileen seme-alaba ikasleek eta gurasoek. Helburua zen, baliabide teoriko eta praktikoak erabilia, bertaratutakoak ohartaraztea irakurketak pisu handia duela haurren adimenaren eta sentimenen garapenean. Esperientzia horretan parte hartu zuen irakasle baten lekukotza irakurriko dizuet orain, haur jornalarien andereñoa da bera:

Lasterka eta bazkaldu ere egin gabe atera nintzen autobusa hartzera; 20 minutuz oinez egin ondoren, eguzkiak gehien berotzen duen unean sorora iritsi nintzen, bizkar gainean liburuz eta haurrekin lantzeko materialez betetako motxila astun bat neramala... urrunean eskola ikus zitekeen, jendea joan-etorrian... denek atseginez agurtzen ninduten, edo begiratu eta, besterik gabe «hor doa andereñoa!» zioten.

Umore txarrez eta izugarri gose, ikasgelara hurbiltzen ari nintzela, haurren garrasiak entzuten nituen. Halako batean neskato bat irten eta zera oihukatu zuen: andereñoa, andereñoa!, guztiak atera ziren ejerzito baten moduan, korrika niregana, ni besarkatu nahian eta poltsarekin lagundu nahian.

«Zer egingo dugu orain?», galdetzen zidaten urduri. Une hartan albo batera utzi nituen arazo guztiak; zugandik zerbait ikasteko irrikaz dauden aurpegi horiek ikusita dena ahazten baituzu eta haurrak dira zure arreta guztiaren erdigune. Ikasgelan lanetik etorri berriak ziren haur gehiago zeuden, logale, gose eta nekatuta, baina, hala ere, ikasteko prest.



⇒ Hizpide ⇒

9. PEC – Kalitatezko Ikastetxeen Programan sartuta dauden ikastetxeak ebaluatzerakoan aurkitutako jardunbide komunak. Ikerlari arduraduna: Armando Loera.

Haurrak eskolara joaten direnean –normalean lan egin ostean– gogotsu joaten dira. Eskolara joatea gustuko duten galdetzen zaien bakoitzean, ikasteko gogo handia dutela izaten da normalean erantzuna. Haur horiei gainerako haur mexikarrek jasotzen duten hezkuntza bera (edo hobea, dauzkaten gabeziak orekatzeko) eramatea konpondu gabeko kontua da erakunde mexikarrentzat.

V. Politikek izandako eragina balioestea

Hitzaldi honetako azken puntu gisa, Irakurketako Programa Nazionalari egin zaizkion balioespenen inguruan hitz egingo dut. Hona hemen, beraz, kanpoko ebaluatzaile adituek emandako daturik garrantzitsuenak:⁹

- Ikasgelatan geroz eta liburu gehiago egon, orduan eta anitzagoak dira jarduera pedagogikoak (46 liburutik aurrera datua oso adierazgarria da). Hau da, 50 liburu baino gutxiago edukita, ez da alde handirik nabaritzen soilik testu-liburuak edukitzen ziren egoerarekin erkatuta, baina kopuru horretatik aurrera, jarduera pedagogikoak aldatzen hasten dira.
- Ikasleek liburuak eta bestelako materialak eramaten dituzte etxera maileguan. Inkesten arabera, ikastetxe indigenetako haur-eskolara doazen haurren amen % 40ak bere seme-alabekin batera irakurtzen du etxean.
- Ikasleek gustukoaren duten materialak hautatzen dituzte irakurtzeko.
- Liburuak soilik liburu-txokoan daude.
- Materialak ikasgelan daude egunero erabiltzeko moduan.
- Materialak ulergarriak eta errazak direla esan dute, nola irakasleek nola ikasleek.
- Ikasgelan bertan irakurketako materialak sortzen dira, eta ikasleek ere parte hartzen dute sorkuntza horretan.

Ikastetxeetan liburuak egoteak kapital kulturala handitzen du. Gaur egun, eskola publikoko ikasgela batean (haur-eskola, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzan) 100 liburu daude batez beste. **Kalitate-adierazle bakar horrexetan ageri dira lehen hezkuntzako eskola publikoak (hirikoak, landa-guneetakoak eta indigenak) batez beste eskola pribatuak baino askoz egoera hobean.** Bestalde, ikastetxe partikularrak (matrikulazioen % 5 hartzen dute) ikasleko 2,2 liburuko batez bestekotik behera ageri dira, ikasleko batez beste liburu bakarra eskaintzen dutelako.

2005ean irakurketaren ulermenaren ebaluatzerako egindako azterketan alde nabariak antzeman ziren 2000. urteaz geroztik:

- Seigarren mailan, ulermeneko lehenengo mailan zeuden ikasleen kopurua jaitsi egin zen, % 25etik (2000. urtean) % 16ra (2005ean),



⇒ Hizpide ⇒

eta ulermeneko maila gorenean zeuden ikasleen portzentaia igo egin zen, % 23tik % 33ra.


- Lehen hezkuntzako ikasleen % 62 estandarretik hurbil edo oso hurbil dago. 2000. urteko ikasle-kopurua baino % 13 gehiago.
- Bigarren hezkuntzan, ulermeneko lehen mailako datuak % 27tik % 26ra baino ez dira aldatu, eta laugarren mailakoak, % 21etik % 24ra baino ez, lehen hezkuntzan baino hobekuntza askoz geldoagoa ageri dutelarik.



Lehen hezkuntzan lortutako ulermen-ebaluazioko datuak hezkuntza-modalitateen arabera banatuz gero ere, ikus dezakegu hezkuntza-modalitate guztietan eskuratu direla lorpen oso handiak, komunitateko ikastaroetan izan ezik. Eskola indigenetan % 21eko jaitziera izan zuten ulermeneko lehen mailan zeuden ikasle-kopuruari dagokionez, eta % 5eko igoera laugarren mailan zeuden ikasle-kopuruan, % 13 izatera iritsi baitziren. Datuak modu horretan aldatzea izaten da garrantzitsuena.

Horregatik, ikerlariak baikortzat jo dute IPNak irakurleen trebakuntzan izan duen eragina, nahiz eta oraindik ere egiteke dagoen bidea luzea den.

Nire gaurko hitzaldia aniztasunari buruzko hausnarketa batekin itxi nahiko nuke eta, horretarako, José Carlos Castañedak idatzitako testu baten zati bat irakurriko dut, *Etcétera* aldizkarian argitaratua (277. zenbakia. 1998). Honela dio: «besteren ganean egindako galdera aniztasunaren interpelazioa da. Besteren bilaketa horretan espirituaren lehioak pluralismora zabaltzen baitira. Kultura beti da hibridazio prozesu. Mestizaje edo nahastea. Ez baitago purutasunaren ametsean bizirauten duen kulturarik». Mila esker!



Elisa Bonilla: Atención a la diversidad en la formación de lectores en México

Su conferencia tiene tres ejes temáticos básicos: contexto demográfico, concepto de diversidad y diversos ejemplos prácticos y concretos.

Así en el primer punto, habla sobre la diversidad cultural e idiomática de México. Aborda la situación socioeconómica y el grado de analfabetismo entre los indios de México, y por último informa sobre la creación del Instituto Nacional de las Lenguas Indígenas en 2005.

En el segundo punto, Elisa concibe a los escritores como los intermediarios indispensables en un diálogo cultural y guardianes del patrimonio artístico. Considera que al hablar de diversidad hay que hacerlo contemplando todos los géneros literarios, así como el máximo de autores posibles.

En el tercer y último eje, explica el Programa Nacional de Lectura de México y expone el programa educativo para niños jornaleros agrícolas que al migrar constantemente con sus familias apenas están escolarizados.

El artículo completo en castellano en:
www.galtzagorri.org

Elisa Bonilla: Tackling diversity in the training of readers in Mexico


Her lecture focused on three basic subject areas: the demographic context, the concept of diversity, and different practical and concrete examples.

So, in the first part she dealt with Mexico's cultural and language diversity. She looked at the socio-economic situation and the degree of illiteracy among the Indians of Mexico; she concluded this part by speaking about the setting up of the National Institute for Indigenous Languages (Instituto Nacional de las Lenguas Indígenas) in 2005.

In the second part, Elisa spoke about her conception of writers as indispensable intermediaries in cultural dialogue, and as guardians of artistic heritage. She believes that when speaking of diversity, it is necessary to do so by considering all literary genres as well as the maximum number of authors possible.


In the third and final part she explained Mexico's National Reading Programme and the education programme for children of farm labourers; these children hardly receive any schooling at all, because they are constantly on the move with their families.

Translated by Sarah J. Turtle



Desberdin irakurri

PATXI ZUBIZARRETA eta JUAN KRUZ IGERABIDE



DESBERDIN IRAKURRI

Desberdin irakurri
Desberdin idlatzi
Desberdin sortu
Desberdin hasi
Desberdin bizi
Desberdin hil

Desberdin begiratu
Desberdin entzun
Desberdin ukitu
Desberdin amestu
Desberdin hartu
Desberdin eman

Desberdin ukatu
Desberdin kantatu
Desberdin dantzatu
Desberdin aztertu
Desberdin jokatu
Desberdin bidaiatu

Desberdin joan
Desberdin itzuli
Desberdin hasi
Desberdin amaitu

1. Desberdin hasi: Adan eta Eva beltzak ote ziren?

Afrikan abiatu zen gizakiaren munduko bidaia. Handik hasi zuten gure arbasoek planetaren konkista. Bide batetik eta bestetik eraiki zuten etorkizuna, eta eguzkiak banatu zituen koloreak.

Orain, gizakiok, lurreko ortzadarrok, zeruko ortzadarrak baino kolore gehiago daukagu; baina guztiok gara afrikar etorkinak. Zuririk zurienak ere Afrikatik datoz.

Beharbada, ez dugu oroitu nahi jatorri berekoak garela guztiok, amnesiatik edo ezinezkoa iruditzen zaigulako sinestea gurea zela garai hartako mundu osoa, mugarik gabeko mapa zabala, eta hankek beste pasaportetik ez zigutela eskatzen.


(Eduardo Galeano: Ispiluak)

* * *

P. Z.: Guztiok gara afrikar etorkinak, dio Eduardo Galeanok, diosku Juan Kruz Igerabidek. Eta hankak beste pasaportetik ez zigutela eskatzen diote. Mapa hitza ere aipatzen dute, eta amnesia. Hitz iradokitzaileak guztiak ere.

Afrikatik gatozen bidaiariak gara. Hobeki esan gaurkoan zuek bidaiatu zarete

↻ Hizpide ↻



Donostiaraino eta, nahitara ala nahi gabe, kontzienteki ala inkontzienteki bidaia arriskutsu bat egin duzue. Bejondeizuela eta ongi etorri, beraz. Eta bidaia arriskutsuarena diot orain dela urte batzuk, *Mundo* egunkarian, uda partean «Bidaia arrikutsuen mapa» argitaratu zutelako. Hiru harridura markarekin (!!!) adierazten zuten nora ezin zen joan: Kolonbia, Ruanda, Libano...; birekin (!!) nora joan behar zen kontu handiz: Kenia, Serbia, Yemen...; eta bakar batekin (!) non ibili behar zen erne eta manifesta-zioetatik urrundurik: Euskal Herria... Hauxe duzue, bada, gure herria, eta ongi etorri berriro ere topikoak ez sinesteagatik eta gomendioei kasu ez egiteagatik.

Bidaiak beti izan du arriskuaren eta beldurraren alderdi hori. Portugalen, esate baterako, Belém-eko museo kartografikoan bada XIV. mendeko mundu ezaguna erakusten duen mapa bat, gainerako masa misterioitsua azaltzeko honela dioena: *De aqui para diante só há dragões*.

Baina maparekin batera, amnesia ere aipatu dugu, eta hori da gure gizartearen ezaugarriarik behinenetako bat, edo itsukeria. Amnesia dela eta, Milan Kunderak honela azaltzen zuen matematika existentziala: zenbat eta azkarrago bizi, orduan eta gehiago ahantzi. Baina itsukeria gure amnesiaren sinonimoa ere izan daiteke, eta itsukeria dela eta, Beniamino aipa genezake, hau da, Italiako zenbait tokitan, Belen-ean ipintzen duten artzain etzan-lokartua. Antza, Napoliko eskola bateko haurrei pertsonaia historikoei buruzko idazlan bat eskatu zieten, eta mutiko batek hiru nabarmendu zituen: aurrena, Kaligula, eroa zelako eta zaldia senatore izendatu zuelako; hurrena, Joan Bataiatzailea, basamortuan oihuka zebilelako eta burua moztu ziotelako; eta azkena Beniamino, lotan dagoelako eta inguruan gertatzen dena ikusten ez duelako, hain zuzen ere berak nahiko zukeena...

Eta bai Kunderak bai Napoliko haurrak zer pentsa ematen didate. Irudipena dut haur eta gazte literatura askotan orainari atxikiegi dagoela, eta beste askotan ez duela jaso nahi sarri mingarria den errealitatea.

Literaturak desberdin begiratzeko ere balio du, eta desberdin begiratzuz gero, hau bezalako grafittiak irakur ditzakegu Napolin edota gure hirietako horma uherretan: «Zuek paradisia ezagutzen duzue, guk infernua erakutsiko dizuegu».

2. Desberdin bizi

Orain dela hamar bat urte, Bruselako aireportuan mekanikariak hegazkin bateko erregai ontziak ikusmiratzen ari zirela, bi gazteren gorpuak topatu zituzten, 14 eta 15 urteko Koita Yaguine eta Tounkara Fode ginearrak. Autopsiak argitu zuenez, hipotermiak eta hipoxiak jota; antza, zeropetik berrogei graduko tenperatura –hipotermia– eta oxigeno falta –hipoxia– izan ziren fin gaizto hura eragin zietenak.

⇒ Hizpide ⇒

Koita Yaguinek eta Tounkara Fodek seguruenik ipuin asko entzunak izango zituzten, eta, miseriarik ihesi, amaiera zoriontsu baten esperoan menturatu-ko ziren hegazkin haren errailetan... (jakitunek oroitarazten diguten gisan, Espainiako Estatuko hiritar bat Marokoko bat baino 12 bider hobeki bizi da, Frantziako hiritar bat marokoar bat baino 20 bider hobeki, Alemaniako bat egiptoar bat baino 45 bider hobeki).

Egunkariak azaldu zutenaren arabera, Koita Yaguine eta Tounkara Foderen gorpuen alboan, gutun bat zegoen, honela zioena:

Europako nagusi eta arduradunei:

Gehiegi sakrifikatzen eta arriskatzen garela iruditzen bazaizue, jakizue Afrikan gehiegi sufritzen delako dela, eta pobreziari aurre egiteko, gerra amaitzeko, behar zaituztegu.

(Baina Koita Yaguinek eta Tounkara Fodek seguruenik ez zuten ezagutzen Rafik Schamik idatzia duen esaldia: «Politika eta lukainka elkarren antzekoak dira; higuina sentiarazten dute nola egiten diren ikustean».)

* * *

J. K. I.: Politika eta lukainka elkarren antzekoak dira; higuina sentiarazten dute nola egiten diren ikustean... Hurrengo hitzaldi batean hitz egingo dugu, ordea, lukainkaz, Tip eta Coll ospetsu haiek esan ohi zuten moduan.


Isaac Bashevis Singer-ek *Maitasuna eta erbestea* izeneko autobiografian hauxe dio: «Idazten hasi baino askoz ere lehenago –umemoko baino ez nintzela–, honako galdera hau egin nion neure buruari: Zerk bereizten du gizaki bat beste batetik?».

Zerk bereizten du gizaki bat beste batetik? Gorputzak desberdinak ditugu, koloreak desberdinak ditugu, bizimoduak ere ez ditugu berdinak, poltsikoko dirua ere desberdina dugu, janariak ere desberdinak ditugu, kulturak ere desberdinak ditugu. Gauza askok bereizten ditu gure gorputzak eta gure gogoa. Baina, batez ere, desberdintasunak berak bereizten gaitu gehienbat. Desberdintasunak desberdintzen gaitu, batik bat.

Eta zerk berdintzen du gizaki bat beste batekin? Gorputzak, oinarrian, berdinak ditugu, elementu kimiko berdinez osaturik gaude, koloreak ere berdinak ditugu, guztiok dugu bizarren bat beltza (edo gutxienez txantxarren bat), guztiok ditugu hortzak zuriak, odola gorria, eta arnasa lurruntsua; guztion diruak erosten edo saltzen ditu arimak, guztion kulturak erabiltzen antzeko sinbolo oinarritzakoak. Beraz, gauza askok batzen ditu gure gorputzak eta gure gogoa. Baina, batez ere, oso-oso berdinak ditugu gosea eta premia, mina eta nekea, ilusioa eta jakingura, maitasuna eta elkertasuna.

Eta, hala ere, berdinak ez bagara, hala ere desberdintasuna gailentzen bazaigu... lukainkak behintzat guztiok berdintzen gaitu. Bide batez esanda, euskaraz lukainka da gezurraren sinonimoetako bat. Baina agindu dut beste batean mintzatuko garela lukainkaz.





3. Desberdin amestu

Tassili eta beste eskualde batzuetan, Sahara aldean, haitzuloetako margolanak ageri dira, duela sei bat mila urtekoak, irudi estilizatuak: behiak, zezenak, antilopeak, jirafak, errinozeroak, elefanteak...

Irudipen huts ote ziren animalia haiek? Edo basamortuan bizi zirenek harea edaten ote zuten? Eta zer jaten zuten? Harriak?

Arteak erakusten digu basamortua ez zela basamortu. Hango aintzirak itsasoaren antzekoak ziren, hango haranetan bazkatzen ziren animaliak; eta, gerora, animalia haiek hegoaldera jaitsiko ziren, galdutako hezetasunaren bila.

(EDUARDO GALEANO: *Ispiluak*)

* * *

P. Z.: Eduardo Gleanok Tassili aipatu zuen, baina Egiptoko Wadi Sura ere aipa genezakeen; hara joaterik izan ez dugunok *Gaixoa ingelesa* filmean ikusi genituen hormetan margotutako igerilari estilizatuak. Errealitateak, borroak bezala, aurpegi asko ditu, eta literaturak gutxienez itxura eta mamiaren arteko zalantza eragiten lagun diezakegu.

Napoliko haur hark ezikusia egin nahi zion mingotsa eta mingarria zitzaion errealitateari, loa eta itsutasuna zituen ihesbide, baina Juan Kruzek eta biok behin errealitatea ikusten zuen neska itsu bat ezagutzeko zortea izan genuen. Ongi gogoan dut gure liburuak braille metodoaren bitartez irakurriak zituela eta, haren eskolara egindako saioaren amaieran, marrazki banarekin etorri zitzaigula: han ageri ziren marraztuta berak sekula ikusi ez dituen enarak, kometak..., hain zuzen ere gure liburuetako protagonistak.

4. Desberdin erlazionatu

Beduinoek, basamortuan lotara erretiratzeko direnean, ez dute ahanzten handik erromesen bat edo bidaiari galduren bat igaro daitekeela; horrexegatik, muino batean su ttiki bat egiten dute, eta badirudi hondarrezko itsaso horretan faro bat pizten dutela; beduinoen kanpamendura edonor heltzen dela ere, ez diote bere izen edo norabideaz galdegiten, eta galderen ordeztu otordu bat eskaintzen diote; beduinoenean, bisitaria printze, preso eta poeta izango da: printzetzat hartuko dute, preso sentituko da hainbeste ohoreren artean eta, akaberan, poeta izatea egokituko zaio, izan ere hitzik egokienak aukeratu beharko ditu kanpamenduko buruzagia laudatu eta goresteko.


Antzera mintzo da *Bab'Aziz* filmaren zuzendari Nacer Khemir tunisiarra. Haren esana da: «Fundamentalismoak eta erradikalismoak ez dute Islama aditzera ematen, Inkisizioak Jesusen fedea aditzera ematen ez duen bezala [...]. Gutako bakoitza bestearekiko ezjakintasunean itotzen da. Errealitatea ez, baina beldurra da jendea itotzen duena [...]. Abegikortasuna ez datza soil-soilik jendea onartzean eta jaten ematean, abegikortasuna entzutean eta aditzean datza. Norberaren etxean jendea onartu, jaten eman eta, segidan, ez ikusiarena egitea guztiz ezinezkoa da».

* * *

↻ Hizpide ↻

J. K. I.: Beduinoen kanpamendura edonor heltzen dela ere, ez diote bere izen edo norabideaz galdegiten, eta galderen ordez otordu bat eskaintzen diote; beduinoengan, bisitaria printze, preso eta poeta izango da...

Ongietorri eta ohore, bada, gure kanpamendura bisitan etorri zaretenoi; otordua Itziar Zubizarreta beduindar paregabeak eskainiko dizue. Senti zaitezte printze eta printzesa errege-erreginentzat eraikitako jauregi eder honetan, non musika jotzen baitute Euskal Herriko musikaririk eztienek. Senti zaitezte preso, une batez, hitzaldia amaitu arte, hor kanpoan bi morrosko harrijasotzaile jarri baititugu Patxik eta biok, irteten denari berriro barrura sartzeko gonbita egiteko. Senti zaitezte poeta une batez; eta poeta izateko lehenik belarria hezi behar baita, entzun ezazue poema bat, poema eskimal bat, kantu bat egin nahi eta ezinean ari den gizajoarena: zer, ezintasuna baino multikulturalagorik? Poesiaren definizio bat izan liteke: ezintasunari izena jarri ezinik aritzea.




POLITA DA
Polita da, zeinen polita,
kantu txiki bat egitea
avaya
baina ez zait ondo irteten,
avaya.
Polita da, zeinen polita
ehizan ibiltzea
baina ez naiz ehiztari ona
avaya
Polita da, zeinen polita,
batek nahi duena gertatzen denean,
baina niri ez zait gertatzen.
Hain da zaila dena!
avaya
avaya
Avayaya!

Ezinaren ezinez, ezin dut utzi aipatu gabe hil zaharra ez den Maria Rosa Colaço portugaldarra. Haren *Poesia e vida* liburutik hartua dut honako poema hau, haur batek egina:

Inork ez dizu begiratzen,
baina nik
zurretzat egin ditut bertso hauek
laranjondo maitea.

Gauza asko esango nituzke inork begiratzen ez dien horietaz, laranjondoez. Baina laranjondoez ere beste hitzaldi batean mintzatuko gara.



5. Desberdin bidaiatu

Bonbaiko trenek milioika bidaiari eramaten dituzte egunero, fisikaren legeak hautsiz: kabitzen diren pasaiari baino gehiago sartzen dira haietan. [...] Trena abiatu-rik, batzuk atzetik etortzen dira lasterka, trena galduz gero lana ere galtzen baitute.

Orduan, bagoietatik besoak agertzen dira, leihoetatik edo sabaietatik, eta igotzen laguntzen diete atzeratuei. Beso haiek ez diete galdetzen lasterka etorri berriei atzerritarrek ala bertan jaioak diren, edo zer hizkuntza mintzatzen duten, edo Bharma Ala, Buda ala Jesus sinesten duten, edo zein kastatakoak diren, edo kasta madarikatukoak diren, edo inolako kastakoak ez diren.

* * *

P. Z.: Beduinoek ez zuten galdetzen, bonbaitarrek ez dute galdetzen. Gorputza ez da oztopo, gorputza gara, eta ikasgai ederra dakarkigute bi herri urrunetatik. Eta neure egiten dut ikasgai hori, askotan haur eta gazte literatura idealismo hutsal eta abstraktuarekin lotzen dugulako.

Sebastiá Serrano semiologo katalanak Descartes-en esana irauli beharra aldarrikatzen du, hau da, «pentsatzen dut, beraz, banaiz» itzulipurdikatu eta honakoa proposatzen du: «Sentitzen dut, ukitzen dut, dastatzen dut, usaintzen dut... eta, beraz, banaiz».

Beste modu batera, baina antzeko mezua dakarkigu Gustavo Martín Garzoren gogoeta batek. Idazleak dio bizitzan deskubrimendu handi bat egin behar dela, hau da, jakin behar dela badirela «eguneko hitzak», arrazoiarenak, erabakienak, ohorearenak..., eta «gaueko hitzak», sentimenduenak, obsesioenak, pasioenak, irrikenak...

Beduinoen begiak mintzo dira, bonbaidarren eskuak mintzo zaizkigu, eta gaueko hitzak xuxurlatzen dizkigute isilean. Eta, beldurrak beldur, sentimendu horietara bidaiatzeko gogoa pizten digute, sentimendu horien lurraldeetara.

6. Desberdin ikusi

Kasbako alderik degradatuenetan ere –Aljeriaz ari da–, asko dira antena parabolikoak dituzten etxeak, izan bizilagunen artean ordaintzen dutelako, izan antenarik hurbilenari nola edo hala egin dioten konexio bihurriarengatik. Bizimodu estu eta etsigarri horietan kontsultatzen eta itxaropena pizten duen elementu bakarra izanik, bizilagunek leporaino irensten dituzte europar orgia kontsumistaren isla diren irudi engainagarri eta anestesiarri horiek.

(JUAN GOYTISOLO, *Argelia en el vendabal*)

* * *

J. K. I.: Eta europarroi haien dokumental hunkigarri ekologikoak erakusten dizkigute, antena parabolikoen bidez hori ere. Hara nola antena parabolikoak elkartzen gaituen iparra eta hegoa, eta hara nola gu deskontsultatzen garen haiei begira, eta haiek bi bider deskontsultatzen

↻ Hizpide ↻

diren: batetik, guri begira; eta, bestetik, gurekin egon nahirik, gu giza-gaixook kontsolatu nahirik.

Orain, antena parabolikoek egiten dute garai bateko antropologoek lana. Entzun zein poema polita kanta dezakeen boskimano batek eta guk antena paraboliko bidez entzun. Xalotasun hunkigarria erakusten du, haurraren ikuspegi animistaren antzekoa, zeren ilargiari pertsona bati bezala hitz egiten dio.



ILARGI GAZTE

Ilargi gazte!
Agur, Ilargi gazte!
Agur, agur!
Ilargi gazte!
Ilargi gazte, hitz egidazu!
Agur, agur!
Ilargi gazte!
Esadazu zerbait.
Agur! Agur!
Eguzkia irtetean
hitz egin behar didazu,
zerbait jan dezadan
goseak nago eta.
Esadazu zertxobait,
zertxobait jan dezadan.
Agur! Agur!
Ilargi gazte!

Ikusten zer-nolako xalotasuna! Ba al dago xalotasuna baino garbigarri unibertsalagorik? Xalotasunak batzen ditu munduko gizakion haur barrukoak. Baina xalotasunaz ere beste hitzaldi batean mintzatuko gara.


7. Desberdin sortu

Ganges ibaiaren ertzean bizi izan zen XVII. mendean; saskigilea zen. Inguratzeko zitzaion jendeak galderak egiten zizkion, eta berak poemak bidez erantzuten zien; poemaren amaieran, galdera bat ipintzen zuen, bakoitzak bere erantzuna bila zezan. Mendeetan iraun dute Vikramen poemek jendearen ahotan.

Ba al dakizu zertan ari zaren?

Urte asko gitarra ikasten aritu
maisu on batekin.
Gitarra ondo-ondo ikasi duenean,
jo eta txiki-txiki egin gitarra;
txistua eta atabala hartu
eta kontzertuak ematera irten.

⇨ Hizpide ⇨



Jendeak txistuka eta harrika
hartu duelako
harri eta zur geratu.

Eta okerrena:
gitarrako maisua
oso txarra dela diote denek
eta herritik bidaltzen dute.

Hona Vikram Babuk galdetu:
Ba al dakizu zertan zabiltzan?

* * *

P. Z.: Eta guk, ba al dakigu zertan gabiltzan? Kontziente al gara dugun arduraz?

Irudipena dut idazleok ikasi dugula idazten, eta lan egokiak, txukunak idazten ditugula. Irudipena dut editoreek ere antzera jokatzen dutela, eta nahiago dituztela arrisku handirik gabe lan txukun horiek bikainak baino. Egokitasuna, benetakotasunaren kaltetan.

Bestela esatearren, uste dut Beniamino artzain lokartua bezala gaudela, lozorro gozoan, ezikusia eginez. Eta esplizitoago izateko, gogora datozkit kritikariek *CLIJ* aldizkarietan urteko balantzea egiteko erabili izan dituzten izenburuak, eta gehienetan errepikatzen den hitza: egonkortasuna, jarraikortasuna...

Baina aldaketa oso handien lekuko gara eta nahasi gaude. Angel Erro poeta gazteak honela ohartarazten zuen: «Literatura, gaur egun oraindik ezagutzen dugun moduan, orain dagoen irakasleen belaunaldiarekin desagertuko da». Antzera mintzo zen Gustavo Puerta Leisse Galtzagorri elkarteko *Behinola* aldizkarian: irakurketa bideratuegiak, funtzionalitate handiegikoak, pedagogikoeziak, onkeriak jotakoak eta sinpleegiak nagusi dira, inkontzienteki bada ere pasibotasuna, onespina eta konformismoa bilatzen dutenak.

Konplexutasuna –liburuetan ezkutukoa bada ere–, analisia zorrotz eta argia eskatzen digu garai honek. Biltzar honek. Eta, beldurra gorabehera, arriskuak arrisku, abiatzeko eta bidaiatzeko kemena.

Gure bizitokietan ditugun etorkinek gutxienez ahozkotasanaren bitartez komunika diezagukete beren esperientzia, baina komunikazio idatzian ere gero eta zeresan handiagoa izango dute. Horren adibide pozgarria dugu Najat El Hachmike marokoar jatorriko idazlea, Ramon Llull saria katalanez irabazi berria duena. Eta guk geuk ere ez dugu idazketa ahortzi behar, betiere irakurketarekin orekan.

Erne egon beharra daukagu, planifikazioak eta gestioak gainditzen dituzten gaueko hitzak esateko prest, baita egun argia izanik ere, gure sentimenduak, obsesioak, pasioak, irrikak adierazteko eta komunikatzeko.

8. Desberdin itzuli

Bagdadekin batera, Toledo Erdi Aroko ardatz kulturala izan zen. Han itzultzaile eskola bat zegoen, eta ez zioten egilearen jatorriari erreparatzen itzultzeko moduko zerbait egina bazuen. Avicena sendagile eta filosofo persiarraren lana, esate baterako, arabieratik latinera itzuli zuten, baina ez nolana: Ibn Daud juduak arabieratik gaztelaniara itzultzen zuen, ozenki itzuli ere, eta Dominicus Gondisalvi kristauak latinera bihurtzen zuen. Hona Alain de Libera jakitunak horretaz dioskuna:

Bagdad eta Toledo benetako ikasgaiak dira, izan ere, itzultzeari uzten dion gizartea heriotzara gainbehera baitoa. Horixe da, hain zuzen ere, mundu musulmanari Toledoko garaian gertatu zitzaiona; itzultzeari utzi, besteen jakituriari buruzko kezka galdu eta, une batetik bestera, horra bizikidetzaren porrota.

Baina Ibn Daud juduak itzuli behar ez zituen bestelako testu arabiarrekin ere hartzen zuen atsegin; esate baterako, gero Joseba Sarrionandiak itzuli zuen Mohammed Al-Kaliren poema honekin:


Ez dizut esango gazela begiak dituzula,
Ez zure ilea arratsaldeko haizea baino
leunagoa denik. Ez dizut esango zure mugimenduek
zikoinaren hegaldiaren dotorezia dutenik,
Ez eguzki aldeko mendi magalen sosegua dutela,
Ez baita egia, zure gorputza nahiko normala da,
Baina zurekin ez nagoenean maleriaz gaisotzen naiz.

* * *

J. K. I.: Azken poema horren arabera, argi dago amodioak batzen dituela kolore eta gainerako desberdintasunak. Zerk nahastu ditu, bada, amodioak ez bada, arrazak arrazekin? Kulturak eta itzulpenak? Ez noski. Amodioak bai, ordea, salbuespentxoak salbuespentxo: gerrak, bortxaketak, bahiketak, gorputzen sal-erosketa, eta abar, eta abar.

Beraz, salbuespentxoak salbuespentxo, amodioak berdintzen gaitu, eta ugaltzen. Mintza gaitzen, beraz, amodioaz, xalotasunaz, laranjondoaz, lukainkaz... Baina beste batean beharko du. Bitartean, bizi gaitzen amodioz, xalotasunez, laranjondoaz, lukainkaz... izan dezagun amodio, xalotasun, laranjondo, lukainka...

Desberdin irakurri	Desberdin begiratu	Desberdin ukatu	Desberdin joan
Desberdin idatzi	Desberdin entzun	Desberdin kantatu	Desberdin itzuli
Desberdin sortu	Desberdin ukitu	Desberdin dantzatu	Desberdin hasi
Desberdin hazi	Desberdin amestu	Desberdin aztertu	Desberdin amaitu
Desberdin bizi	Desberdin hartu	Desberdin jokatu	
Desberdin hil	Desberdin eman	Desberdin bidaiatu	



Patxi Zubizarreta y Juan Kruz Igerabide:

«Leo diferente», conferencia inaugural

A partir del lema Leo diferente, Patxi seleccionó cuatro citas, y otras cuatro Juan Kruz (De Rafik Shami, Eduardo Galeano, Juan Goitysolo...), ocho en total, y fueron intercalando breves comentarios de las citas que se iban proponiendo mutuamente. La conferencia giró en torno a unas cuantas ideas básicas:

- *Todos somos inmigrantes africanos, porque parece ser que la raza humana se expandió por toda la Tierra desde dicho continente. Somos viajeros, y el viaje siempre nos produce miedo y peligro.*

- *En el viaje de la existencia, cuanto más veloz se vive, tanto más se olvida (matemática existencial definida por Milán Kundera)*

- *La política y la longaniza son similares; da asco ver cómo se fabrican (Rafik Shami).*

- *Los escritores hemos aprendido a escribir obras adecuadas y bien hechas. Los editores actúan igual; prefieren trabajos bien hechos sin mucho riesgo a los brillantes pero arriesgados. Lo adecuado se antepone a lo verdadero.*

- *Aceptar diferente al diferente: «Sea cual sea el que llegue a un campamento de beduinos, no le preguntan a dónde se dirige; en lugar de preguntárselo, le agasajan con una comida; entre los beduinos, el visitante se convierte en príncipe, preso y poeta».*

Patxi Zubizarreta and Juan Kruz Igerabide:

Opening lecture entitled: «I read differently».

Taking the motto I read differently as the basis, Patxi selected four quotations and Juan Kruz another four (from Rafik Shami, Eduardo Galeano, Juan Goitysolo, etc.) –eight in all–. These were interspersed with brief comments that the two of them put to each other one by one. The lecture focused on a number of basic ideas:

- *We are all African immigrants, because the human species seems to have spread all over the Earth from that continent. We are travellers and the journey always causes fear and danger.*

- *In the journey of existence, the more rapid one lives, the more one forgets (existential mathematics defined by Milán Kundera).*

- *Politics and sausages are similar; it is disgusting to see how they are made (Rafik Shami).*

- *We writers have learnt to produce suitable, well-made works. Publishers act in the same way; they prefer works that have been well produced with little risk involved, rather than brilliant but risky ones. What is adequate thus takes precedence over what is genuine.*

- *Accept what is different in a different way: “Whoever arrives at a Bedouin camp is not asked where he is going; instead of being questioned, he is entertained with a meal; among the Bedouin the visitor becomes a prince, a prisoner and a poet”.*

Translated by Sarah J. Turtle

